# ¿NON DAGO NIRE TXARTELA?

**1** Ez dut nire txartela aurkitzen! ▶ **ZER EGIN DEZAKET?**

## ITZALI TXARTELA

beste inork hura erabiltzeko aukerarik izan ez dezan.

Gero berriz ere aurkitzen baduzu, piztu ezazu berriz, eta berriz erabiltzeko prest izango duzu.

ITZALI

Itzali txartela

**2** Behin betiko galdu dut... ◀ **...edo lapurtu egin didate**

## BLOKEATU TXARTELA

beste inork hura erabiltzeko aukerarik izan ez dezan.

### ESTATUAN

**Telebanka**
**901 333 444**

Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 22:00etara, eta larunbatetan 08:00etatik 15:00etara.

**900 200 128**

Erakundearen ordutegitik kanpo deitzen baduzu, erabili telefono hau

### ATZERRIAN

**Telebanka**
**+34 943 779 909**

Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 22:00etara, eta larunbatetan 08:00etatik 15:00etara.

BLA BLA BLA

**Nazioarteko Visa**
**900 991 124**

Erakundearen ordutegitik kanpo deitzen baduzu, erabili telefono hau

**3** Txartel gehiagorik ez baduzu... ▶ **Eta denak blokeatuta badaude...**

Ez kezkatu, zauden tokian zaudela, minutu gutxi batzuetan eskudirua lor dezakezu. **Zenbait aukera aurkezten dizkizugu, txartelik gabe eta eskudiruaren beharrean zaudenerako.**

## ESTATUAN

### 1. AUKERA Atera dirua txartelik gabe LABORAL Kutxaren kutxazain batean

LABORAL KUTXAREN KUTXAZAIN bat daukazu zugandik hurbil.

\+

Telefono mugikorra daukazu eskura, eta ONLINE BANKAN alta emanda zaude.

Sakatu "atera dirua txartelik gabe" funtzioa, kutxazainaren pantailan. ONLINE BANKAren kodeak eskatuko dizkizu, baita une horretantxe zure mugikorrean jasoko duzun kodea ere.

### 2. AUKERA HALCASH transferentzia

HALCASH kutxazainen sarea: www.halcash.com

**Baina bai** Cajamar, Abanca, ING Direct, Bankinter, Evo edo Euro Automatic Cash **erakundeetako kutxazainen bat.**

**EZ** daukazu LABORAL KUTXAren KUTXAZAINIK zugandik hurbil.

\+

Horrelako transferentzietarako, zure mugikorra eta HALCASH kutxazain bat beharko dituzu.

**1. URRATSA**
ONLINE BANKATIK, Telebankatik edo bulegotik, zuk edo beste pertsona batek HALCASH transferentzia bat egiten du zure mugikorrera.

**2. URRATSA**
Jaso bidalitako dirua HALCASH kutxazain batean, zure mugikorrera bidalitako gakoak sartuz.

### 3. AUKERA Atera dirua leihatiletan

UNACCen kutxazainetako **leihatila**

Dirua leihatiletan ateratzeko aukera izango duzu UNACC Kreditu Kooperatiben Batasun Nazionaleko kutxa jakin batzuen artean lortutako akordio bati esker. Honako kutxa hauetara jo dezakezu: Nekazarien Kutxak, Banko Kooperatiboa eta Ingeniarien Kutxa.
**Gogoratu NANa aurkeztu beharko duzula.**

## ATZERRIAN

### MONEYGRAM bidezko transferentzia 1. AUKERA

Norbaitek LABORAL Kutxaren bulego batera joan behar du eta MONEYGRAM bidezko transferentzia eskatu, horrela zuk, zauden tokian zaudela, eskudirua ateratzeko aukera izan dezazun.
**Dirua bidaltzen dizunaren datuak eta zure NANa aurkeztu beharko dituzu.**

**ERNE! Datuek bat etorri behar dute.**
AurkItu zugandik hurbilen dagoen MONEYGRAM bulegoa/agentzia.

**10 minutu eskasean jasoko duzu dirua.**

LABORAL kutxa

\+

**MONEYGRAM** bidezko transferentzia

Interneten begiratuz gero, MONEYGRAMen agentzia kolaboratzaileak mundu osoan barrena aurkituko dituzu.
Aurkitu zugandik gertuen dagoena, eskudirua ateratzeko zeregina nekeza izan ez dadin eta urrunegi harrapa ez zaitzan.
**Ongi bilatu, seguru badaukazula aukeraren bat hurbil-hurbil!**

**4** Oraindik egun batzuk gehiago egongo zara kanpoan? ◀ **...eta txartela erabili behar duzu**

Txartel bat blokeatzen duzunean, Mugikordainketarako ere blokeatzen da, baina zure telefonoan berri bat eduki dezakezu txartel fisikoa eduki beharrik gabe.

Mugikordainketako aukera hori beti erabilgarri edukitzeko:
Gogoratu LABORAL Kutxako zure txartel guztiak **LK-PAYrekin** eta **Apple PAYrekin** lotu behar dituzula; mugikorrean horien guztien kopia bat edukiko duzu.

Pay

Gainera, Telebankara deituta ere eska dezakezu txartel berri bat nahi duzun tokira bidaltzeko. Entrega-denbora desberdina izango da entrega egiten den herrialdearen eta tokiaren arabera.

**INFORMAZIO GEHIAGORAKO**
Telebanka estatuan 901 333 444
Telebanka atzerrian +34 943 779 909

Gogoratu zure kreditu-txartela Nazioarteko VIsa bidez **blokeatzen baduzu**, larrialdietarako eskudiru-kopuru bat eskatu ahalko duzula, oso baliagarria da!

**Telebanka : +34 943 779 909**
**Nazioarteko Visa : 900 991 124 / 900 991 216**

## TIP
### VERY ERABILGARRIAK

Edozein arrazoirengatik, planteatutako alternatibetako bakar bat ere erabiltzeko aukerarik ez baduzu, posta-bulego batetik norbaitek eskudiru-transferentzia egin dezake zuretzat...

**1**
GARRANTZITSUA da Online Bankan altan emanda egotea, horrela plantetau dizkizugun aukera guztiak eskuragarri edukiko dituzu-eta. Oraindik altan emanda ez bazaude, pasa zaitez gure bulegoetako batetik, bidaia hasi baino lehen.

**2**
Atzerrira bidaia egiten duzun bakoitzean, eraman zure NANa eta zure pasaportea, eta horrela horietako bat hoteleko kutxa gotorrean uzteko aukera izango duzu.
Oso lagungarria izan daiteke, gainean daramazun dokumentua gal dezakezulako. Norbaitekin bazoaz, emaiozu horien fotokopia bat. Inoiz ere ez dago soberan!

**3**
Dirua eta txartelak poltsikoetan banatzea komeni da. Ez eraman inoiz bidaiako diru guztia gainean.

Bidaiara txartel bat baino gehiago eraman baduzu, gorde toki desberdinetan. Horrela, txartel bat galdu edo lapurtzen badizute, bestea izango duzu erabilgarri.

**4**
Internet eskura baduzu, informazio hori guztia hodeian gordetzea komeni da, edo gutxienez eman dizkizugun telefonoak, NANaren eta pasaportearen kopiarekin batera. Badaezpada ere!

Txartelak ez ezik, dokumentazioa eta gizarte-segurantzako txartela ere lapurtu badizute, dagokion tokian salaketa jarri edo jakinarazi beharko duzu.